# ZAZPIGARREN ERAKASPENA.



## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1- Nor da anaia gehienarendako andercetto hura?
2- Zer baldintza behar du bethe jauregian sartzeko?
3- Aberatseko zer egin zuten zazpi ohoinek?

## (II) 10. ZAZPI OHOINAK 2.

—Milesker, jaun gaztea. Jainkoak ja behatu dio zure bihotz onari... Eta norat ari zira hola, barkamendurekin?

—Ori, batere ez dakit... Fortuna egitera, ahal balinbadut. Niri erraiteko ez zinakike non egoiten ohi den anderetto hoi? Bi solas egin niozkake gogo onez...

—Eta ni banintz anderetto hura?... Saririk gabeko ongieginik ez da Jainkoarekin... Huna zuk behar duzuna: Hortxeko oihan handian bada jauregi eder bat; jauregi eder hortan bizi dira zazpi anaia, egunaz pilotan, gauaz ohointzan ari direnak. Zoazi jauregirat buruz. Bainan, harat gabe, zur-xuri luze luze bat kausituren baituzu, igan zaite haren gainerat. Eta zure parrean ikusiren baituzu orduan herriko pilota-plaza handia, ongi behazazu; eta zazpi pilotari balinbadira han, pilotan ari, zoazi deskantsuz eta sar zaite jauregian. Gauza ederrik ikusiren duzu han; harrazu nahi duzun guzia, *bainan ongi balia*; gauza hek oro ebatsi gauzak dira, eta heien jabeak oro hilak, zazpi anaia ohoinek lehenago oihan zokoan hilak...»

Hitz horiek erran orduko, suntsitu zen atxo xaharra, eta muthil gazteak jakin zuen hola Ama-Birjina bera agertu eta itzali zitzaiola tenore hartan.

* * *

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

| | |
|---|---|
| 31. Ez dakit | 32. Ez zinakike |
| 33 Ni banintz | 34. Zoazi jauregirat |
| 35 Igan zaite | 36. Itzali zitzaiola. |

### 31 JAKIN Indicatif Présent

| CDS | CDP |
|---|---|
| Nik dakit = je le sais | N dazkit = je les sais |
| H-ik dakik/n = tu le sais | H. dazkik = tu les sais |
| Zuk dakizu = vous le savez | Z dazkizu = vous les savez |
| Harek daki = il le sait | H dazki = il les sait |
| Guk dakigu = nous le savons | G dazkigu = nous les savons |
| Zuek dakizue = vous le savez | Z dazkizue = vous les savez |
| Heiek dakite = ils le savent | H dazkite = ils les savent |

### 32 JAKIN EVENTUELS

| Présent | Passé |
|---|---|
| Nik banaki = si je le savais | N. Jakin banu = si je l'avais su |
| Hik bahaki = si tu le savais | H -"- bahu = si tu l'avais su |
| Zuk bazinaki = si vs le saviez | Z -"- bazinu = si v. l'aviez su |
| Harek balaki = s'il le savait | H -"- balu = s'il l'avait su |
| Guk baginaki = si ns le savions | G -"- baginu = si n. l'avions |
| Zuek bazinakite = si vs le saviez | Z -"- bazinute = si v. l'aviez su |
| Heiek balakite = s'ils le savaient | H -"- balute = s'ils l'avaient s |

### 34. JOAN - Aller - Indicatif

| PRESENT | IMPARFAIT |
|---|---|
| Ni noa = je vais | nindoan = j'allais |
| Hi hoa = tu vas | hindoan = tu allais |
| Zu zoatzi = vs allez | zinoatzin = vs alliez |
| Hura doa = il va | zoan = il allait |
| Gu goatzi = ns allons | ginoatzin = ns allions |
| Zuek zoazte = vs allez | zinoazten = vs alliez |
| Hek doatzi = ils vont | zoatzin = ils allaient |

### 33 IZAN EVENTUELS

| 1ère Forme : si j'étais | | 2ème Forme : si j'étais | | 3ème Forme : si j'avais été | |
|---|---|---|---|---|---|
| Ni izaiten banintz | Eventualité prochaine. (à présent) (tout à l'heure) | N. izan banindadi | Eventualité éloignée Eventuel futur | N izan banintz | Action réalisable mais non réalisée donc passé (Exprimée en Français par le Plusque Parfait) |
| Hi izaiten bahintz | | H -"- bahindadi | | H bahintz | |
| Zu izaiten bazine | | Z -"- bazinte | | Z bazine | |
| Hura izaiten balitz | | H -"- baladi | | H balitz | |
| Gu izaiten bagine | | G -"- baginte | | G bagine | |
| Zuek izaiten bazinezte | | Z -"- bazint | | Z bazinezte | |
| Hek izaiten balire | | H -"- balite | | H balire | |